

begirada

72

otsaila
2019



Lege gordailua BI-1163-05

ikus
pegi

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración



VENEZUELAR JATORRIKO BIZTANLERIA EUSKADIN

“Venezuelar jatorriko biztanleria Euskadin” izenburu duen 72. Begirada honetan, ildo berezi eta bitxiak ageri dituen Latinoamerikako kolektibo batean jarri dugu arreta. Izan ere, Venezuelan jaiotako biztanleriak nolabaiteko garrantzia izan du historikoki EAEn: XX. mendean emigrazio-prozesu ekonomiko eta politiko bat izan zen herrialde horretara, eta, geroago, hara joandako asko itzuli egin ziren. Alabaina, gaur egungo immigrazio-aldian urria izan da, duela bi urte arte, herrialde horretatik heldutakoen emaria. Azkenaldian, berriz, etorreren fluxua bizkortu egin da, seguruenik herrialde horrek bizi duen egoera ekonomiko, politiko eta sozialagatik; fluxu horretan, bereziki nabarmentzen dira asilo-eskaerak.

Venezuelar jatorriko biztanleriaren mugimenduen bilakaera

1. taula

Venezuelar jatorriko biztanleriaren bilakaera Espainian eta EAEn. 1998-2018

	1998	2000	2002	2004	2006	2008	2010	2012	2014	2016	2018
Espainia	46.388	54.719	71.597	100.258	124.851	144.593	155.056	162.063	160.588	180.289	255.071
EAE	1.373	1.549	1.895	2.464	3.241	3.687	4.033	4.355	4.216	4.623	6.232
EAE/Espainia	3,0	2,8	2,6	2,5	2,6	2,5	2,6	2,7	2,6	2,6	2,4


Iturria: INE

Gaur egun, venezuelar jatorriko 6.232 pertsona bizi dira EAEn; jatorri atzerritarreko biztanleen % 3 da hori, eta jatorriaren araberako zerrenda horretan hamargarrena da. 1. taulan ikus daitekeenez, venezuelar jatorriko biztanleek EAEn duten pisua Estatuaren guztizkoarekiko oso egonkor mantendu da denboran zehar; pixka bat jaitsi egin da, baina, oro har, oso ildo homogeneoa ageri du.

1. grafikoa kolektibo horren urtetik urterako hazkundearen bilakaerari buruzko datuak ageri dira. Ikus daitekeenez, 2006. urtera arte hazkundera iraunkorra izan zen, baina urte horretatik aurrera joera horrek indarra galdu zuen. Espainiako krisiaren aldiaren, venezuelar jatorriko herritar gutxi etorri ziren; hain zuzen, 2013an eta 2014an saldoa negatiboa izan zen. Alabaina, 2016az geroztik hazkundera nabarmena izan da, 2017 eta 2018a baino lehenagoko edozein urtetan baino handiagoa. Normalaenez, hazkunde-aldi horretan krisi ekonomiko, politiko eta soziala izan zen Venezuelen, eta horrek azaltzen du, neurri handi batean, fluxuen gorakada hori. Izan ere, jatorri atzerritarren artean, 2018an EAEn gehien hazi den bosgarrena Venezuela izan da; Nikaragua, Maroko, Kolonbia eta Honduras soilik ditu aurretik.

1. grafikoa


Venezuelar jatorriko biztanleriaren urtetik urterako hazkundearen bilakaera EAEn. 1999-2018



Iturria: INE

2. grafikoa

Venezuelar jatorriko biztanleriaren bilakaera herritartasunaren arabera (atzeritarra/espainiarra) EAEn. 1998-2018



Iturria: INE


2. grafikoa Venezuelen jaio eta atzeritar zein espainiar herritartasuna duten herritarren datuak jaso ditugu. Ikus daitekeenez, urte guztietan espainiar herritartasuna da nagusi, batez ere 1998tik 2002ra bitartean –% 70etik gorako ehunekoak–. Urte horretatik aurrera, Venezuelen jaio eta atzerriko herritartasuna duen biztanleriaren pisua haziz doa pixkanaka, eta 2018an ia erdia –% 48,7– izatera heldu da.

Aztertutako lehenengo aldia –1998-2002–, biztanle gehienek espainiar herritartasuna zuten; gehienak Venezuelen jaioak ziren, baina arrazoi ekonomiko eta/edo politikoengatik herrialde horretara emigratu zuten euskal jatorriko familiatan. 2002. urtetik aurrera, immigrazio-fluxuak EAEn iristearekin bat, joera hori aldatu egin zen, eta hainbat pertsona arrazoi ekonomiko eta politikoengatik heltzen hasi ziren; azken bi urteotan, joera hori nabarmen indartu da. Hain zuzen ere, pentsatzekoa da 2019an gehiago izango direla Venezuelen jaio eta atzerriko herritartasuna duten pertsonak –gehienek Venezuelakoa– espainiar herritartasuna dutenak baino.

Azken urteetako etorreren hazkunde horren ondorioz, Venezuelako kolektiboan behera egin du, nabarmen, erregularizazio-tasak. Beste Begirada batzuetan adierazi dugun moduan, egoitza-baimen gutxien duen taldea iritsi berriena da, eta Venezuelako kolektiboan horrelako asko daudenez, ondorioa da azken bi urteotan erregularizazio-tasa nabarmen jaitsi dela, 2016ko % 64,1etik 2018ko % 43,5era.

3. grafikoa

Venezuelar jatorriko biztanleriaren erregularizazio-tasaren bilakaera EAEn. 1999-2018



Iturria: INE


Asilo-eskaerei buruzko datuak

Venezuelako egoera sozioekonomiko eta politikoa dela-eta, aurreko puntuan aztertutako fluxuen zati bat asilo eta babesaren figura medio bideratzen ari da. Hala, UNHCR iheslarientzako NBEren Agentziaren arabera, 2014tik 3 milioi pertsonak baino gehiagok utzi dute herrialdea.

Venezuelaren kasuan, zehazki, asilo-eskaerak asko hazi dira, Espainiako lurraldean izan diren tasa orokorrean eragiteraino. 4. grafikoa ikusten denez, Estatuan asilo-eskatzaileen joera goranzkoa da argi eta garbi: 2004an 5.553 eskatzaile izan ziren, eta 2017an, berriz, 31.120. Eskatzaile-kopuruaren hazkunde handiena azken 4 urteetan izan da. 2015ean (urte horretan 5.947tik 14.881era igo zen), aurrerantzean dezenteko pisua izan duten beste herrialde batzuetako eskatzaileak izan ziren,

4. grafikoa


Asilo-eskatzaileak Espainian. 2004-2017



Iturria: CEAR eta Eurostat

5. grafikoa

Nazioarteko asiloaren eskatzaileak Estatuan jatorriaren arabera. 2017



Iturria: CEAR eta Eurostat

Eskatzaile-kopuruaren hazkunde handiena azken 4 urteetan izan da

hala nola Siria eta Palestinakoak. Baina 2017ko hazkundea, batik bat, asilo-eskatzaileen artean venezuelar jatorrikoak oldarka sartu izanari zor zaio.


Hala, 2017ko eskaera guztietatik –31.120–, 10.350 venezuelar herritartasuna duten pertsonenak izan dira; guztizkoaren % 33,3 da hori. Beste jatorri batzuk, esaterako Siria, Kolonbia eta Ukrainakoak, oso urrun daude, 5. grafikoan ikus daitekeen moduan.

Bestalde, jatorriak badu zerikusirik atzera botatako eta onartutako eskaeretan. 6. grafikoan, atzera botatako eskaeren ehuneko handiena duten herrialdeak ageri dira. Latinoamerikako jatorriei dagokienez, ia eskaera guztiak atzera bota dira. Venezuela talde horretan dago: eskaeren % 98,4 atzera bota dira, eta % 1,6 soilik onartu; azken horiei errefuxiatu-estatutua eman zaie.

EAEEn, zehazki, eta beste estatistika-iturri bat erabilita, Estatuko joera bera ikus daiteke, hau da, venezuelar jatorriko pertsonen asilo-eskaeraren hazkunde handia; izan ere, 2014ra arte ia eskaerarik ez zegoen eta 2016an jada 143 ziren. Pentsatzekoa da azken bi urteetan askoz eskaera gehiago izan direla.

6. grafikoa


Atzera botatako eta onartutako asilo-eskaerak jatorriaren arabera Espainian. 2017



Iturria: CEAR eta Eurostat

7. grafikoa

Venezuelar jatorriko biztanleriaren asilo-eskaeren bilakaera EAEEn. 2008-2016



Iturria: egileak, Barne Ministerioiko datuak oinarri hartuta

Ondorioak

Atal honetan, *Begirada* honen ondorio nagusiak laburbildu ditugu, EAEn bizi den venezuelar jatorriko biztanleriaren immigrazio-fluxuen ezaugarriak nabarmenduz:

- Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da azken bi urteetan –2016-2018– venezuelar jatorriko pertsonen etorreren hazkunde handia izan dela; aurreko urteetan, aldiz, kopuruak askoz apalagoak izan ziren. Pentsatzekoa denez, egoera ekonomiko, sozial eta politikoak eragina izan du bilakaera horretan.
- Bestalde, nabarmentzeko modukoa da venezuelar jatorriko kolektiboaren barruan bi talde daudela. Lehenengoa, EAEn denbora gehiago daramana, Venezuelan jaio eta espainiar herritartasuna duten herritarrek osatzen dute; eta bigarrena, berriz, Venezuelako herritartasuna duten venezuelar jatorriko herritarrek. Hasierako urteetan lehenengo taldea zen nagusi, baina 2002. urtetik aurrera immigrazio-fluxuak EAera iristearekin bat, bigarren taldea indarra hartuz joan da, eta dagoeneko nagusia da azken urteetan.
- Oraindik orain gertatu den etorreren hazkunde bizkorra dela-eta, erregularizazio-tasak nabarmen egin du behera azken bi urteetan, eta, ondorioz, Venezuelako herritartasuna duten biztanleen ia erdiak egoera irregularran daude.
- Migrazio-fluxu horien zati bat asilo- eta babes-eskaeren bitartez bideratzen ari da. Hain zuzen, 2017an eskaeren herenak venezuelar jatorriko herritarrek egin dituzte, eta horietako ia % 100 atzera bota dituzte.
- Hori guztia aintzat hartuta, esan daiteke venezuelar jatorriko herritarren egoera nahiko berezia dela, Latinoamerikako beste jatorri batzuekiko desberdina, eta ondorioz sozialki kolektibo oso kaltebera dela; hori, besteak beste, irregulartasun-tasa altuan islatzen da. Ez dirudi epe laburrean fluxu horiek geldituko direnik, eta, horregatik uste dugu kolektibo honekiko jardunbidean berezitasun horiek kontuan hartu behar direla.